

Argitalpen honek Donejakue Bidearen kostaldeko zati bat deskribatzen du, Debakoa, eta honako etapa hauek zehazten ditu: Zarautz/Deba eta Deba/Ziortza-Bolibar (Ziortzako Kolejiata).




Zarautz - Getaria - Zumaia - Itziar - Deba (21 km.)
Zailtasuna: ertaina • Denbora: 6 ordu.

Ibilbidearen zati handi bat XIV. eta XV. mendeetako bideetatik igarotzen da. Hasteko, Getariako norabidea erakusten duen harrizko bideari heldu behar zaio; Zarauzko parrokiako elizatik 150 metro ingurura hasten da, Meagaseko errepedean. Santa Barbara basilikara doan errepede honek aldapa handia du. Goiko aldean oinez ibili ondoren, Getariako sarrerako etxeetaraino iristen den errepedetik jaitsi behar da. Seinaleei jaramon egin eta ezkerreko joko dugu. Askizu auzora igo ondoren, Zumalara iritsiko gara (9,3 km).

Herri honetako alde zaharra zeharkatuz, bideak kanposaturantz igotzen du. Ondoren, Elorriagako (Deba) auzotxora iristen da eta gero Itziar herriraino (18 km). Itziarreko ostatuak, janari-dendak eta jatetxeak ditu. 16. eta 21. kilometroen artean ere nekazalurmoko etxeetan hartu daiteke ostata.

Elorriagatik Debara beste bidezidor bat ere badago; zailtasun handiagoa du, baina geologiaren eta paisaiaren aldetik balio handikoa da. Labarren ondotik igarotzen da, itsas ertzetik. Inguru hau Babestutako Biotopo izendatu behar dute; GR-121en zatia ere bada (gorriz eta zuriz markatuta dago).



ELORRIAGA
Mapa zaharretan nabarmen ageri zen enklabe garrantzitsua izan zen, eta Zumaiatik Itziarra joateko ezinbesteko igarobidea. Historialariren batek bere antzinatasuna X. edo XI. mendeetaraino iristen dela baieztatu du, eta 1391 urteko agiriaren dagoeneko aipatzen zen.
Bertako San Sebastian ermitaren barruan bataiarri erromanikoa nabarmentzen da, baita Andra Mariaren irudia ere (XIII-XIV m.), eta San Roke eta San Sebastianen bi taila txiki.
San Sebastian ermita



ITZIAR
Herrigune honi eginko erreferentziak, denboran atzera jota, XI. mendera arte iristen dira, eta 1294an sortutako Montreuil hasieran bertan kokatzen zen. Data horren aurretik, Santa Maria eliza existitzen zen jada. Egun daukagun eraikina, jatorri gotikoaren eta XVI. mendean gainjarri zitzaion eraikuntzaren arteko konbinaketa da.
Eskualde osoan irudi erromaniko batek irudikatzen duen Itziarko Amabirjinari egiten zaion gurtza handia da. Ama Birjina gain batean dago eta bertatik kostaldearen panoramika ederra ikus daiteke.

Itziartik (hau da etapa honetako azkeneko zatia eta zatirik errazena) bideak behera egiten du Debaraino, kasu honetan ere itsas ertzetik. Debak era guztietako zerbitzuak eskaintzen ditu; hala ere, alde zaharretik Turismo Bulegoarekin harremanetan jartzea aholkatzen dizuegu. Seinaleztatutako bidetik joatea gomendatzen dizuegu eta ez errepedetik, oso arriskutsua eta 2 km luzeagoa delako.

Bizikletaz dabiltzan erromesak: Mendiko bizikletaz doszen erromesak N-634 errepedetik egingo dute Zarauztik Getariarako bidea. Getariatik kilometro batera Askizuko errepedea hartuko dute, ezkerreko, arestian deskribatu dugun bidera iristeko. Zumalara eta Itziar artean N-634 hartzea komeni da. Itziar eta Deba artean seinaleztatutako bidetik jarraitu daiteke. Izan ere, zoru porlanezkoa da eta aldapak behera egiten du.
Errepideko bizikletaz dabiltzanek beti erabili beharko dute N-634 errepedea.

Deba - Kalbario - Apain - Markina Xemein (22 km.)
Zailtasuna: altua • Denbora: 7 ordu.

Donejakueko antzinako bidea Sasiola eta Astigarribia auzo historikoetatik igarotzen bazen ere, gaur egun Deba-Kalbario-Apain bidea egitea aukeratu dute.

Deba eta Markina-Xemein artean ez da herririk zeharkatzen; Olatz (7,2 km) auzotxoa baino ez dugu aurkituko. Olatzen jatetxeak daude.

Bidegurutzetako asko dagoenez, seinaleei arretaz erpreparatu behar zaie, okerreko biderik ez hartzeko. Ibilbide hau Zumaiatik Debara doana baino pixka bat gogorragoa da, basoak zeharkatzen ditu-eta.

Deban bidea itsasoaren mailan dago, 485 metrora iristen da gero eta Markina-Xemeinen, azkenik, 94 metrora jaisten da.



Santa Maria elizako klostroa



San Roke ermita

DEBA
Izen bereko ibaiaren ahoan dagoen 5.250 biztanleko kostaldeko herria.
Hondartza eder bat eta landa-ingurune zoragarria ditu, bizitokia eta uda-pasako tokia da.
Herriaren burutasuna 1343an Itziarretik Debako ibaiaren estuariara igaro zen, egun dagoen lekura, eta planifikaturiko herria eraiki zen; egun oraindik herri-egitura bera gordezen da. XV. eta XVI. mendeetan zehar herriak garapen handia izan zuen, kalak merkataritza-maila gorena izan baitzuen, Kastilako artilea esportatuz eta ballarako burdina garraiatuz. Oparotasun ekonomiko horren erakusgarri da XV-XVII mendeetako Santa Maria eliza gotiko-errenazentista, klaustroa, elizatari polikromatua eta kaperak dituen.
Deba itsasoz iristen ziren erromesentzako sarrera-kaia izan da, eta, egun, Kostaldeko Bidea egiten dutenen bukaerako eta hasierako etapa da. Bidazti gehiago zebilen garaietan erromesentzako hiru ospitale izatera iritsi zen.

Ibilbidea Deban hasten da, itsasadareko zubi bakarra zeharkatuz. Bidean 130 metro inguru egin ondoren, ezkerrean dagoen porlanezko pista hartu behar da (goraka doana).

Beti ere seinaleei arreta jarrita, Kalbario gainera iritsiko gara. Toki honetan errepedea zeharkatuko dugu. Errepide horrek eramango gaitu Apaineko muinora lehendabizi eta Olatz auzora eta Amoaiera ondoren. Hemendik Markina-Xemeineraino jaitsiko gara. Herri honetan era guztietako zerbitzuak aurkituko ditugu.

Bizikletaz dabiltzan erromesak: Mendiko bizikleta erabiltzen dutenek GI-638 errepedetik egingo dute Debatik Mutrikurako bidea. Herri honetatik iritertzerakoan, ezkerreko auzo-errepidea hartu behar dute Olatzera joateko.
Olatzen, seinaleztatutako errepedean sartu eta hari jarraituko diote Markina-Xemeinera iritsi arte; herri honetatik Ziortza-Bolibarera errepedez joango dira eta hemendik Ziortzako Kolejiatara seinaleztatutako bidetik iritsiko dira.



Markina Xemein - Ziortza-Bolibar (Kolejiata) (6,2 km.)
Zailtasuna: ertaina • Denbora: 1,5 ordu.

Markina-Xemeindik Ziortza-Bolibarera bidea erosoagoa da. Bilborako errepedea hartuz, azkeneko etxeetatik 600 metrora, Erdotzako basiliza gotikoa ikusiko dugu eskuinetara. 60 metro ibili ondoren, eskuinetara desbideratuko gara. Bide horretatik Ziortza-Bolibarera iritsiko gara. Elizaren ondoan harrizko gaitzatik joko dugu. Kilometro 1,5 ibili ondoren, Kolejiatara iritsiko gara. Hauxe da etapa honen amaiera.

Ziortza-Bolibarren ostata aurkituko dugu. Kolejiataren ondoan. Dena den, alde zaharretik Debako Turismo Bulegoan informatzea gomendatzen dizuegu.

Ziortzako sarbidea

ERROMESEN ATERPETXEA DEBAN*

Kalbeton zumardis, z/g • Tel.: 943 192 452
Deban, Donejakue Bideko Lagunen Ekarteak kudeatzen du aterpetxe hau. Aterpetxea Kalbeton zumardian dago, Gurutzetako Gortaren ondoan. Urte osoan egoten da zabalik. Bertan gau bakarrerako ostata baino ezin da hartu. Debako Turismo Bulegoan eskatu behar da bertako giltza (Bulegoa Itxita dagoenean, Udaltzaingoko ematen du giltza).
*Oinez edo bizikletaz datozen erromesak oraritzen ditu (jonezko ematen zaie lehenetsia), baldin eta bezeroan Debako beste ostatu batean lo egin ez badute.

OSTATUAK DEBAN

- HOTELAK**
- KRESALA*** Talasoterapia, Marikegi, 6. Tel.: 943 608 052
 - KANALA** Itziar. N-634. Iteera 13, A-8 Autopista. Tel.: 943 199 035
- PENTSIOAK**
- ZUMARDI** Mariñel kalea, 12. Tel.: 943 192 368
 - ITXASPE Itxaspe auzoa. GI-3291. N-634 desbideraketa. Iteera 13, A-8 Autopista. Tel.: 943 199 377
- KANPINAK**
- ITXASPE Itxaspe auzoa. GI-3291. N-634 desbideraketa. Iteera 13, A-8 Autopista. Tel.: 943 199 377
- NEKAZALTURISMOAK**
- ARRASKETA Lastur behea. GI-3292. Tel.: 943 604 071
 - ARRIVOLA TXIKI Arriola auzoa. N-634tik desbideraketa. Tel.: 943 192 000 / 606 522 147
 - ARRUAN HAUNDI Lastur auzoa. GI-3292. Tel.: 943 603 704
 - DONIBANE Egia auzoa. N-634tik desbideraketa. Tel.: 943 191 554 - 617 686 337
 - ERROTA BERRI Itxaspe auzoa. N-634tik desbideraketa. Tel.: 943 199 423
- GOIKOLA**
- KRESALA*** Lastur auzoa. GI-3292. Tel.: 943 199 082
 - SAKA-PERLAKUA Arriola auzoa. N-634tik desbideraketa. Tel.: 943 191 137
 - SANTIARAN BEKOA Mardani auzoa. N-634. Tel.: 943 199 056
 - TXERTURI GOIKOA Itxaspe auzoa. GI-3291. Tel.: 943 199 176 - 616 055 919
 - TXINDURRI-TURRI Mardani auzoa. GI-3291. Tel.: 943 199 389 - 695 684 490
- LANDETXEAK**
- ELEIZONDO San Nikolas plaza, Lastur. GI-3291. Tel.: 943 199 033 - 636 006 823
 - OI-LUR Erdola auzoa, 14. Tel.: 943 148 467 - 600 038 680
 - ZELAIETA-BERRI Itxaspe auzoa, 14. Tel.: 943 742 856
- ATERPETXEAK**
- NAPARRANEKUA San Nikolas plaza, Lastur. Tel.: 943 199 090
 - Debatik Lasturera eta alderantzizko garraio-zerbitzua eskaintzen du



Debako portua - Puerto de Deba



Ziortzako Kolejiata - Colegiata de Cenaruzza

BIDEAREN SEINALEZTAPENA
SEÑALIZACIÓN DEL CAMINO

- Santiago bidea Camino de Santiago
- Autopista
- Lehenetsia duen errepedea Carretera de Interés Preferente
- Eskualde errepedea Carretera Comarcal
- Udaltzaingoko errepedea Carretera Local
- Ibaia Rio
- Ermita Ermita
- Hotela Hotel
- Nekazalturismoa Agroturismo
- Kanpina Camping
- Aterpetxe Albergue
- Landetxea Casa Rural
- Apartamentua Apartamento
- Iturria Fuente